

BEÑAT ETXEPARE

HAUR ETA GAZTEENTZAKO ANTZERKI ARETOA

SALA DE TEATRO PARA NIÑOS, NIÑAS Y JÓVENES

Temporada 2022 - 2023 *Denboraldia*



KOTONDARRAK

Material pedagogikoa

ntolatzailea / Organizador

Babeslea / Patrocinador

Dirulaguntzak / Subvencionan



TEATRO ANTZOKIA
PRINCIPAL!
VITORIA-GASTEIZ



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Vital
FUNDACIÓN · FUNDAZIOA

Laguntzaileak / Colaboran

Bazkidetza / Asociada a

EL CORREO
PARTE DE TI ZURE BAITAN




Casa del Libro



BIARGI SAREA

adeste+





KULTURAN DIRARRAK



Fitxa didaktikoa



**amorebieta
etxano**
UDALA AYUNTAMIENTO



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



zornotza
aretoa



SAREA
EUSKADIKO
ANTZOKI SAREA
RED VASCA
DE TEATROS



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE EDUCACIÓN, CULTURA
Y DEPORTE

inaem

INSTITUTO NACIONAL DE
LAS ARTES ESCÉNICAS Y DE LA MÚSICA



**etxe
pare**
EUSKALINSTITUTUA
INSTITUTO VASCO
BASQUEINSTITUTE

HARROBIA

Centro de Innovación en Producción
Escénica de Bilbao-Otxarkoaga




zornotza
aretoa



Bilbao

Anita
mara
vilas
teatro
marionetas

portabi
<< producciones culturales



Jatorrizko ideia
Zuzendaritza
Antzezleak
Jatorrizko musika eta bertsoak
Abestien hitzak
Argiztapen-zuzendaritza
Eszenografia
Jantzien diseinua
Txontxongiloak
Atrezzoak
Ikus-entzunezko erregristrazioa
Horma-irudia/Esku-Programa
Argazkilaria
Ekoizpen exekutiboa
Ekoizpena
Banaketa
Launtzaileak
Diruz laguntzen du

Miren Larrea
 Iván Alonso
 Miren Larrea, Valentina Raposo/Maren Basterretxea
 Fran Lasuen
 Miren Amuriza
 Ion Chávez
 Iñaki Ziarrusta (Atx Teatroa)
 Betitxe Saitua
 Valentina Raposo
 Jabi Tirado
 Itxaso Díaz
 Maite Gurrutxaga
 Txelu Angoitia
 Ainhoa Bernaola
 Iratxe Extremiana-Portal 71
 Rocío Pindado-Portal 71
 Zornotza Aretoa / Topic / Harrobia
 Gobierno Vasco



Konpainia

Anita Maravillas txontxongiloen antzerkiera erabat dedikatuta dagoen konpainia da, Bartzelonan hasi zenetik, eten gabe ikertuz, prestakuntza luzea duena. Euskal Herrian ekoizten ditu bere ikuskizunak, ZORNOTZA ARETOA eta PORTAL 71 ekoiztetxearekin elkarlan estuan.

MIREN LARREAK (Euskal Herria) eta VALENTINA RAPOSOK (Txile) sortu zuten 2005ean. IVAN ALONSO eta ION CHÁVEZ konpainian sartzen dira, zuzendaritza eta argiztapenean hurrenez hurren eta biak dira sortzaileak orain, Anita Maravillas kolektiboaren kide egonkorak.

Anita Maravillasek txontxongiloen lengoia eta maneiatzailearekiko harreman eszenikoa ikertzen ditu. Konpainiari harreman hori lantzea interesatzen zaio eta lanketa horrekin gozatzen du. Horretarako, hainbat baliabide narratibo erabiltzen du, meta-fikzioa kasu, antzerkia antzerki barruan gaia lantzeko. Ikuskizun bakoitza erronka berri bat da, txontxongiloak maneiatzeko teknikak ere ikertzen direlarik: txontxongiloak, pertsonen tamainako txontxongiloak, itzalak, hagaxkak... Konpainiaren sormen prozesuetan funtsezkoa da txontxongiloak egiteko tailerra, han jaiotzen dira pertsonaiak eta

xeheetasunik txikiena ere zaintzen da.

Konpainiak bost ikuskizun ditu: "LEONORREN AMETSAK", helduei zuzendua; "SAREAN SUN SUN", "BLUE BIRD", "PINTTO PINTTO" eta "JON BRAUN", familiei zuzenduak. Azken proposamen hau eraman dute biran 3 urtez estatuan zehar eta sari bat ere irabazi dute: AMIGOS TITIREMURCIA A MEJOR ESPECTÁCULO FAMILIAR 2018.

Konpainiak "SARDINA BAKALAU" kaleko proposamena ere badu. Kritika onak eta ikusleen harrera zoragarria jaso dituzte guztiekin.

 <http://anitamavillasteatro.blogspot.com/>

Kotondarrak

SINOPSISIA

Jatorriko herriaren arriskuak atzean utzita, **Cotton familia hirira doa bizitza eta aukera berrien bila.**

Hiriko teilatu eta argien artean, fabrikako oihal, hari eta argien artean, ama eta bi alabak abentura berriak eta arrisku ezezagunak biziko dituzte. Baina oraingoan ez daude bakarrik eta zoriotsu izateko gogoari helduko diote indarrez.



<https://youtu.be/0UZaQ5ey80g>

XX mendearen hasierako **oihal-industriako emakumeek egindako langileen borroketan inspiraturik.** Cottondar emakume hauek, iraultza industrialean bete-betean murgilduta dagoen familia baten begiradaren bidez, nekazalguneeetatik hirirako exodoa erakusten digute, lantegietako bizimodu gogorra, baina baita ere bizimodu duina elkartasunari lotuz baino ez zutela lortuko ulertu zuten emakume haien adibidea ere.



<https://vimeo.com/468052642>

NORI DAGO ZUZENDUTA

Ikuskizun hau **haurrei** zuzenduta dago (**5 urtetik gorakoei**), baita familiei ere.



Edukiak eta balioak

- Industrializazioaren etorrera
- Nekazalguneetatik hirirako exodoa
- Langileen borroka
- Emakumea industrian
- Lantegietako lana
- Ahizpatasuna zer den
- Bizimodu duina lortzea
- Zaintzen garrantzia
- Zerk egiten gaituen zoriontsu



Ikuskizuna baino lehenago

HELBURUA: “Antzerkia” denaren ikuspegi orokora, zentzu fisikoan zein artistikoan. (Atal hau, funtsean, lehen aldiz haurrentzako ikuskizun bat ikustera doazen ikasleentzako izango litzateke).

Antzerkira joatea esperientzia paregabea da, **ikus-ten duguna zuzen-zuzenean gertatzen da**. Zinera joaten garenean edo telebista ikusten dugunean ez bezala, **antzezleak eta ikusleak espazio berean, areto berean, daude**, gehienetan antzoki batean. Gure begien aurrean gertatzen dena ezin da errepikatu ezta atzera egin ere. Horrenbestez, oso garrantzitsua da **adi egotea, zehaztasun txikiena ere ez galtzeko**.

Badira **ikuskitzunean parte hartzen duten pertsona asko baina ez ditugunak ikusiko emanaldia- ren egunean**. Adibidez: musika idatzi duen pertsona, eszenografia eraiki duena, antzezlanazuzendu duena edo ikuskizuna, toki askotan ikus dadin, banatzen laguntzen duena. **Antzerkia talde-lana da**, pertsona askoren energia behar duena dena ondo ateratzeko.

Nola izan ikusle ona?

- Jakin behar da, normalean ikuskizuna hasten denean, antzokiko argiak itzali egiten direla.
- Arreta jarri ikusten ari garen horretan eta isilik egon.
- Jakin behar da normala dela ikuskizun batean emozionatzea: barregura edo negargura izatea, edo pertsonaia batekin identifikatzea.

Zer egin dezakegu?

- Komunera, antzezlanari hasi aurretik edo bukatu ondoren joan.
- Ez jan ezta edan ere, emanaldiak irauten duen bitartean.
- Sakeleko telefonoak itzali. Soinurik izan ez arren, piztuta dauden pantailek beste ikusleak eta antzezleak molestatzen dituzte.
- Irten beharko bagenu, isilik irtengo gara, inor molestatu gabe.



Ikuskizuna ikusi ondoren

Ikuskizun honek **gogoeta eta hausnarketa sustatzea** proposatzen du. Horretarako honako ariketa hauek aurkezten dira. Kontuan izango dira testuingurua, ikasleek adierazitako lehentasunak eta aukeran dugun denbora, horien arabera egokienak aukeratzeko.

1. Helburua: Memoria lantzea narrazioaren sekuentziak gogoratzeko.

Antzokitik irteten garenean, egiten dugun lehen gauza da, **galdetzea, besteei eta geure buruari ere, ikusi duguna gustatu zaigun ala ez**. Bata nahiz bestea erantzunik ere, **lehen iritzi hau aldatu egin daiteke**, zentzu positiboan, ikaskideekin hitz egin eta lasaiago hausnartu ondoren.



Proposatzen diren ekintzak

- Norberaren hitzekin azaltzea zertaz ari den ikuskizuna.
- Iritzia ematea ikuskizuneko zer gustatu zaigun edo zer ez azaltzeko.
- Nortzuk ziren protagonistak? Non bizi ziren? Nora joaten dira? Nolakoa da etxe berria? Zer desberdintasun dago aurreko egoerarekiko? Arreta jarri diezu eszenatokiei, zer aldaketa nabaritu duzu/dituzu? Zein/zeintzuk pertsoniarekin/pertsonaiekin ikusten duzu zure burua identifikatuago? Zeintzuk pertsonaia gustatzen zaizkizu gehiago? Zein edo zeintzuk gutxien? Zergatik? Deskribatu euren itxura.
- Istorioak bukaera zoriontsua du?
- Hausnartu sentitu zituzten emozioei buruz, pena, beldurra...



2. Helburua: Asmamena sustatzea eta adierazpen artistikoa eta bat-batekotasuna garatzea.



Antzezlanaren **txotxongiloena** da, baina, **zertan datza genero hau?** Txotxongilo mota asko dago.

Batzuk **hariak** dituzte eta kontrol edo aginte batekin maneiatzen dira, betiko txotxongiloak; beste batzuk **eskuarekin**, eskularru-txotxongiloak kasu; eta beste batzuk soslai edo itzal bat baino ez dira. Batzuk oso txikiak izan ahal dira, **hatz-txotxongiloak** kasu. Era guztietako lehengaiez eginda egon daitezke.

KOTONDARRAKen **mahai gaineko txotxongiloak** erabiltzen dira, beti mugitzen dira mahai gaineko azalean eta burua, eskuak eta oinak dituzte. Baina **itzal-txotxongiloak** ere erabiltzen dira; oihaletan islatzen dira euren soslaiak.



<https://vimeo.com/499327916#t=146s>



❖ Proposatzen diren ekintzak

Eszenografia eta itzalak oso garrantzitsuak dira ikuskizun osoan zehar. Guk ere sor ditzakegu geure istorioak.

Sor ezazu ITZALEN ANTZEZLAN bat LAS COTTONen pertsonaiekin:


- Ebaki soslaiak ●
- Itsatsiezazkiezu hagatxo bana atze aldean
- Oihal zuri batean, proiektatu argia (proiektore, linterna, foku edo beste tresnaren batekin)
- Mugitu txotxongiloak zure istorioa kontatzeko

**Zeure gorputza ere erabil dezakezu*


Sor ezazu ANTZEZLAN MAGIKO bat LAS COTTONen pertsonaiekin:

- Ebaki antzokia
- Ebaki pertsonaiak banan-banan ●
- Itsatsiezazu kartulina beltzeko tiratxo bat pertsonaia bakoitzaren atze aldean
- Jarri pertsonaiak antzokiaren aurrean eta mugitu itzazu zure istorioa kontatzeko









KOTON
DARPAK

3. Helburua: Emakumearen presentzia industrian ikusaraztea.

Historian zehar, emakumeei beti eman zaie eginkizun tradizional bat etxean: etxean lan egitea, sukaldean aritu eta garbiketara egin, umeak zaindu...

XVIII. mendearen bukaeran, **Industria-iraultzarekin batera, emakumeak lan munduan sartzen hasi ziren.** Alabaina, ez zituzten baldintza berdinak: gizonezkoek baino gutxiago ordaintzen zitzaizkien eta ez zituzten lan-eskubide berdinak.

Lan munduan berdintasuna lortzeko borroka izan zen **Emakumeen Egunaren** sorreran dauden arrazoiatariko bat.

XIX. mendearen hasieran, Emakume Sozialisten Nazioarteko Konferentziak emakumeentzako boto-eskubidea aldarrikatzen hasi zen eta Estatu Batuetako lantegietako emakume langileak **greba** egin zuten **lan-baldintzen hobekuntza lortzeko.**



Industrializazio prozesuekin gertatu ziren aldaketek beste arlo batzuk ere astindu zituzten, hala nola, bizimodua, denboraren bizipena, balioak eta lanaren kultura.

Industrializazioaren etapa guztietan, oso garrantzitsua izan da emakumearen ekarpena garapen horretan, baina, emakume hauek ikusezinak izan dira.



 https://youtu.be/JIKWBnWD_Vk



 <https://bit.ly/3jWi6Cc>



❖ Proposatzen diren ekintzak

EHUNDU EGINGO DUGU

Ikuskizunean ehungintzako lantegi batean nola egiten den lan ikusten dugu, oihalak nola egiten diren. Ora-in **geure oihala egingu dugu**, oso erraz, ehungailu baten bidez.

Beharrezko gaiak:

- Kartoia
- Koloreetako hari edo artilea
- Artaziak
- Zinta itsasgarria
- Orrazia

Egin ehungailua tutorial honi jarraiki:



[www https://youtu.be/NqqbvelFu7M](https://youtu.be/NqqbvelFu7M)



4 Helburua: Zer da SORORITATE EDO AHIZPATASUNA?

Ahizpatasun kontzeptua berria da, Euskaltzaindiak bere hiztegian jaso gabe duena, gaztelaniazko sororidad kontzeptuaren parekoa. Real Academia Españolaren arabera, sororidad zera da, **“emakumeen arteko elkartasun harremana, bereziki ahalduntzeko borrokan”**. Sororidad latineko soror-is (ahizpa) hitzetik eratorritako hitza da. Miguel Unamuno idazlea izan omen zen emakumeen arteko senidetasuna, ahizpatasuna, aipatzeko izen bat sortzearen beharra, fraternidad –frater-tris, anaia– hitzarengandik bereizteko.

AHIZPATASUN adibideak:

- Beste emakume batzuk genero-indarkeriatik irteten laguntzea.
- Beste emakume batzuk euren gorputzekin ondo sentitzen laguntzea.
- Beste emakume batzuk independentzia ekonomikoa lortzen laguntzea.
- Beste emakume batzuk kristalezko sabaia apurtzen laguntzea.
- Beste emakume batzuk feminismoaren alde borrokatzen laguntzea.



 <https://youtu.be/HTdyGVWHaRc>



ProPosatzen diren ekintzak

ARGAZKI ALBUMA

Vamos a construir un album con algunas de las **imágenes históricas de mujeres trabajadoras.**


Albuma egingo dugu, emakume langileen irudi historiko batzuekin.

Zure familiako edo inguru hurbileko pertsonen irudiekin ere egin dezakezu, ahizpatasun adibideekin... Liburua tolesteko, jarraitu argibideak edo bideoan jasotako tutoriala.




<https://youtu.be/djXE38d28Pw?t=20>


Azkenik, moztu argazkiak eta azala eta itsats itzazu liburuko orrialdeetan, dagokien tokian




1. Tolestu folio bat erditik 3 aldiz, 8 sekzio izan arte






2. Itzuli lehen tolesdurara eta erditik ebaki lehen bertzeraino



3. Tolestu folioa horizontaletik, ebaketa goialdera begira
4. Bultzatu alboetatik, ebaketa-gunea zabalduz



5. Azala erreferentziatzen hartuz, osatu liburua



EMAKUME

||||| LANGILEAK |||||





1. MEHATZARIAK

7. FEHUN-LANTEGIA

6. TELEFONISTAK

5. SARDINA-SALTZAILIAK

2. GALLETAGILEAK

3. ZAMALARIAK

4. ZIGARROGILEAK

